

IRAKASKUNTZARI LAGUNTZEKO TUTORETZETARAKO PROZEDURA

Gasteizko EUEk lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen talde bat du, zeinak lan egiten baitu 8:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara astelehenetik ostegunera eta 8:00etatik 15:00etara ostiraletan. Ikasleek irakasleengana joan ahal dira lanaldiaren edozein ordutan jarduera akademikoarekin lotutako zalantzak argitzeko.

Era berean, eskolak irakaskuntzari laguntzen dioten irakasleak ditu, eta irakasle horiek beren irakaskuntza-jarduerarako beharrezkoa denean bakarrik joaten dira eskolara.

Beraz, nahiz eta irakasgai guztiek banakako edo taldekako tutoretzak proposatzen dituzten, eskolak jokatzeko bide hau du ezarrita oro har:

- Lanaldi osoko irakasleekin tutoretzak egiteko, aurrez jakinarazi behar zaizkie irakasleei, gelan, telefonoz edo posta elektroniko baten bidez hitzordua hartuz.
- Irakaskuntzan unean-unean laguntzen duten irakasleekin tutoretzak izateko, horiek eskolan ez daudenez, posta elektroniko bidez kudeatu beharko dira eskaerak, ikasgaiaren arduradunaren bidez. Arduradunak kudeatuko du hitzordua dagokion irakasleekin.

Irakasgai bakoitzaren indarreko irakaskuntza-gidan, eguneratuta daude irakasle arduradunen eta laguntzaileen helbide elektronikoak eta telefonoak.